

Liburuak


KRITIKA

Ez ezkondu, aita!

Fina Casadelrrey. Itzulpena: Juan Martin Elexpuru.
Elkar. 175 orrialde. 13,30 euro.

Haur eta gazte literatura

Nahier Etxaniz Erle



Elektra

BLANCA-ANA ROIG RECHOU irakaslea Fina Casadelrreyz aritu zen Galiziako haur eta gazte literaturaz eginiko azterketa berri batean; honen idazkera poetikoa eta protagonistarekiko identifikazioa aipatzen zituen ezaugarri nagusien artean. Baina bada beste bat, gaiari dagokionez, aztertzen ari garen liburu honekin zerikusi handia duena; familia barruko egoerak islatu nahia, alegia. Adopta dezaten eskatzen duen aitonaren kontua eskaini zigun duela urte batzuk idazle galiziar honek, baita etxean txakur bat izateak dakartzan ondorioak ere. Oraingoan, aldiz, izenburuak berak adierazten duen bezala, aita baten eta honen alabaren arteko kontuak azaltzen zaizkigu.

Ez ezkondu, aita! liburu ospitalean dagoen neskato baten ikuspuntutik abiatzen da. Elia ingresaturik dago ospitalean eta hasieratik adierazten digu bere egoera: “Duela gutxira arte zoragarri geunden, baina arazo handi bat sortu zait, eta ez dakit nola konpondu.” (9. or.). Irakurleak bi narratzaile aurkitzen ditu kontakizunean, Elia, lehen pertsona erabiliz, eta hirugarren pertsonaren bidezkoa narratzaile orojakilea. Bi narratzaile hauek tartekatzen dira Eliaren historia ezagutu dezagun eta, aldi berean, protagonistarekiko identifikazioa izan dezagun, gertakariak honen ikuspegitik azalduko baitzaizkigu zenbait kasutan.

Eliaren egoera ulertzeko iragana eta orainaldiaren arteko joan-etorriak izango ditugu, ospitaleko egonaldiarekin batera Eliaren ama hilez gero hauen bizitza nola joan den aldatzen ikusi ahalko dugu. Neba txikiak erditu ondoren etxerako bidean kotxe istripua izan zuten gurasoek eta ama hil. Harrez gero Eliak ez du emakumezko onartu etxean. Egoera, baina, guztiz okertzen zaio aita maitemindu eta beste emakume batekin harremanetan hasten denean.

Casadelrreyk Eliaren historia kontatzeko bi narratzaile erabiltzen ditu, arestian aipatu bezala, eta narrazioa lau ataletan banatzen du –lehen 14 kapituluz osaturik, luzeena; eta azkena, 3 bakarrik dituela, laburrena– egun bakar bateko kontakizuna bilduz. Jakina, istorioak ez du erritmo bera denbora guztian, 175 orrietan gertakari eta gogoeta ugari biltzen dira, lehenak “arazo handia” ulertzen laguntzeko, eta ondoren, batik bat hirugarren eta laugarren ataletan arazoaren korapiloa askatzen laguntzeko. Baina modu batean edo bestean, darabilen egituragatik eta narrazioaren erritmoagatik, idazleak berriro erakutsi digu irakurlea harrapatzeko duen gaitasuna, istorioak kontatzeko duen abilezia. ■

Haurtzaroaren gomuta Appanah-ren nobelan

Nathacha Appanah Maurizio Uhartetean jaio zen 1973an. 2007an argitaratu zuen *Le dernier frère* eleberria, eta Frantzia hainbat sari eskuratu ditu. Mikel Garmendiak itzuli du aipatu liburu eta Alberdania argitaletxearen eskutik argitara eman, *Azken anaia* izenburuarekin. Nobelak honako istorioa kontatzen du: Raj izeneko protagonista

zaharra haurtzaroko gertakari batez gogoratu da. 1930eko hamarkadan, bizimodu zoriontsua hankaz gora joan zitzaion Raji, bi anaia ito zitzaizkionean lohi-uharreen. Horren ondoren familia hirira aldatu zen, eta kartzelan hasi zen lanean aita. Kartzelaren inguruetan ezagutu zuen Rajek David, eta lagun egin ziren. Oso lagun egin ere. ■



Azken anaia.
Nathacha Appanah.
Itzul.: Mikel Garmendia.
Alberdania.
160 orr. 18 euro.

Kazetari espezializatuaren gida

Prentsan lan egin duen edonork badaki zein zaila den gai batzuei buruz informazioa labur, zehatz eta argi ematea. Eta batzuetan zailtasuna ezintasun bihurtzen da kazetari arruntarentzat: espezializazioa beharrezkoa da momentu horietan. Horixe da, hain zuzen ere, liburu honek erakutsi nahi duena: kazetaritzaren kale estu ugarietan lasai moldatzeko gida duzu *Kazetari aditua unibertso digitalean* liburu. Txema Ramirez de la Piscina EHUKo irakasleak egin du liburuaren edizio lana, eta hainbat kazetarik lagundu diote mamia osatzen. Batzuk aipatzearren:

Imanol Murua, Arantxa Iturbe, Jose Mari Pastor, Beñar Kortabarria... ■



Kazetari aditua unibertso digitalean.
Batzuen artean. UEU.
181 orrialde. 20 euro.